PM <sub>10</sub> Mazarredo	1,07x	348	%95,3	1	34,69	57
PM <sub>10</sub> Mondragon	1,00x	359	%98,3	1	27,00	52
PM <sub>10</sub> Mundaka	0,78x	319	%87,4	0	19,00	39
PM <sub>10</sub> Muskiz	1,05x – 2,77	364	%99,7	0	22,00	38
PM <sub>10</sub> Pagoeta	0,74x + 1,81	327	%89,5	0	20,00	36
PM <sub>10</sub> Parque Europa	0,82x	362	%99,1	0	28,00	45
PM <sub>10</sub> Puio	0,78x	358	%98,0	0	21,00	43
PM <sub>10</sub> San Julian	1,20x	365	%100,0	2	32,00	62
PM <sub>10</sub> Sangroniz	0,91x + 1,05	351	%96,1	1	31,00	52
PM <sub>10</sub> Santurtzi	0,76x	363	%99,4	0	29,00	48
PM <sub>10</sub> Tolosa	1,00x	362	%99,1	3 (2)	28,34	65
PM <sub>10</sub> Tres de Marzo	1,00x – 2,40	361	%98,9	12 (10)	39,44	71
PM <sub>10</sub> Valderejo	0,68x + 1,41	324	%88,7	0	17,00	28
PM <sub>10</sub> Zalla	1,34x – 2,18	353	%96,7	3 (2)	29,21	71
PM <sub>10</sub> Zelaieta	1,20x	359	%98,3	12 (7)	42,63	72
PM <sub>10</sub> Zierbena	0,85x	357	%97,8	0	34,00	50
PM <sub>10</sub> Zumarraga	1,00x	354	%96,9	16 (12)	43,00	75

*2015ean Sareko estazio guztietan neurtutako PM<sub>10</sub> balioak araudian ezarritako mugen azpitik daude*


\* Faktore Zuzentzailea: 1,20 lehenetsia.

Ondoren EAEko mapan irudikatzen dira eguneko batez bestekoetatik estazio bakoitzerako lortutako 90,4P-ren urteko balioak (2015 urtea) kolore bati loturik dauden mailetan antolatuta.

Urteko ebaluazioa PM <sub>10</sub>	90,4P eguneko batez bestekoak
Oso ona	0-20
Ona	20-40
Hobetzeko modukoa	40-50
Txarra	50-75
Oso txarra	>=75


Hein eta balio horiek dira Europako Ingurumen Agentziak (AEMA) eguneko batez bestekoak hartuta PM<sub>10</sub>-aren urteko ebaluazioa egiteko erabiltzen dituenak.

### PM<sub>10</sub> 2015 URTEA: 90,4P eguneko batez bestekoak (µg/m<sup>3</sup>)




PM<sub>10</sub>-aren kasuan bi mugei dagozkien ezarritako ebaluazio-atalaseak agertzen dira. Hori dela eta, bi zutabe grafiko agertzen dira: urteko batez besteko eta eguneko batez bestekoen 90,4P-ren grafikoa (2011-2015 urteak).

### PM<sub>10</sub>: Orduko batez bestekoen urteko batez bestekoa



### PM<sub>10</sub>: Eguneko batez bestekoen 90,4P



PM<sub>2,5</sub>

PM<sub>2,5</sub>-arentzat ez da faktore zuzentzailerik erabili. Jarraian dagoen taulan ordu datuetatik lortutako urteko batz bestekoaren kalkuluak (2015 urtea) aurkezten dira.

Kasuen prozesamenduaren laburpena (ordu balioak)				
2015	Zona	N	Portzentajea	Batez bestekoa (µg/m <sup>3</sup> )
PM <sub>2,5</sub> Algorta	2	8330	%95,0	11,19
PM <sub>2,5</sub> Añorga	4	7467	%85,2	11,09
PM <sub>2,5</sub> Ategorrieta	4	8540	%97,4	8,48
PM <sub>2,5</sub> Avda. Gasteiz	7	7193	%82,1	9,01
PM <sub>2,5</sub> Avda. Tolosa	3	7764	%88,6	8,83
PM <sub>2,5</sub> Beasain	6	7247	%82,7	8,91
PM <sub>2,5</sub> Durango	5	7985	%91,1	11,9
PM <sub>2,5</sub> Erandio	2	8139	%92,9	10,61
PM <sub>2,5</sub> Herran	7	6791	%77,5	7,84
PM <sub>2,5</sub> Mundaka	3	7203	%82,2	6,18
PM <sub>2,5</sub> Pagoeta	3	4561	%52,0	5,63
PM <sub>2,5</sub> Parque Europa	2	6934	%79,1	10,91
PM <sub>2,5</sub> Sangroniz	2	7861	%89,7	9,59
PM <sub>2,5</sub> Santurtzi	2	8319	%94,9	11,26
PM <sub>2,5</sub> Tres de Marzo	7	8057	%91,9	10,93
PM <sub>2,5</sub> Valderejo	8	7747	%88,4	6,16
PM <sub>2,5</sub> Zalla	1	7315	%83,5	7,16
PM <sub>2,5</sub> Zelaieta	5	8409	%95,9	11,96
PM <sub>2,5</sub> Zumarraga	6	6536	%74,6	11,32

*2015ean Sareko estazio guztietan neurtutako PM<sub>2,5</sub> balioak araudian ezarritako mugen azpitik daude*




Jarraian EAEko mapan irudikatzen dira orduko batez bestekoetatik estazio bakoitzerako lortutako urteko batez bestekoaren balioak (2015 urtea) kolore bati loturik dauden mailetan antolatuta.

Urteko ebaluazioa PM <sub>2,5</sub>	Orduko batez bestekoaren urteko batez bestekoa
Oso ona	0-10
Ona	10-20
Hobetzeko modukoa	20-25
Txarra	25-30
Oso txarra	>=30


Hein eta balio horiek dira Europako Ingurumen Agentziak (AEMA) PM<sub>2,5</sub>-aren urteko ebaluazioa egiteko erabiltzen dituenak.

### PM<sub>2,5</sub> 2015 URTEA: Orduko batez bestekoaren urteko batez bestekoa (µg/m<sup>3</sup>)



PM<sub>2,5</sub>-aren kasuan, muga balioa bezala, urteko batez bestekoari ezarri zaizkio ebaluazio-atalaseak. Zutabe grafikoan aipatutako azken bost urteetako batez bestekoak irudikatu dira (2011-2015 urteak).

### PM<sub>2,5</sub>: Orduko batez bestekoen urteko batez bestekoa



**KARBONO MONOXIDOA (CO)**

Honakoa da CO-arentzat airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako muga:

Kutsatzailea	Batez bestekoa	Muga balioa	Betetze data
CO	Zortzi orduko batez besteko mugikorren eguneko maximoa	10 mg/m <sup>3</sup>	2005/01/01

Jarraian eguneko zortzi ordukoen batez besteko maximoentzat lortutako emaitzak agertzen dira.

Kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko zortzi orduko maximoak)				
2015	Zona	N	Portzentajea (orduak)	Maximoa (mg/m <sup>3</sup> )
CO Algorta	2	273	88,7	0,8
CO Ategorrieta	4	352	98,7	1,2
CO Avda. Gasteiz	7	349	98,0	1,3
CO Barakaldo	2	361	99,1	0,8
CO Beasain	6	359	99,3	0,9
CO Easo	4	339	96,5	1,4
CO Erandio	2	351	98,3	2,5
CO Llodio	1	309	94,1	1,0
CO M <sup>a</sup> Díaz	2	175	55,1	0,7
CO Mazarredo	2	351	97,4	1,2
CO Mondragon	5	317	95,3	0,7
CO Pagoeta	3	305	92,6	0,4
CO Tres de Marzo	7	348	98,5	1,7
CO Valderejo	8	342	97,5	0,3
CO Zelaieta	5	314	94,9	0,6
CO Zierbena	2	364	99,5	0,5
CO Zumarraga	6	306	93,5	0,7


*2015ean Sareko estazio guztietan neurtutako CO balioak araudian ezarritako mugaren azpitik daude*

Ondoren EAEko mapa irudikatzen dira modu espazialean estazio bakoitzeko urteko zortzi orduko maximoaren balioak (2015 urtea) kolore bati loturik dauden taldeetan antolatuta.

Urteko ebaluazioa CO	Zortzi orduko maximoa
Oso ona	0-5
Ona	5-7
Hobetzeko modukoa	7-10
Txarra	10-15
Oso txarra	>=15


Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eguneko zortzi orduko maximoak hartuta CO-aren urteko ebaluazioa egiteko erabiltzen dituen hein eta balioak moldatu dira.

### CO 2015 URTEA: Zortzi orduko maximoa (mg/m<sup>3</sup>)



CO-aren kasuan, muga balioaz gain, zortzi ordukoen batz bestekoentzat ebaluazio-atalaseak ezarri dira. Zutabe grafikoan azken bost urteetako batez bestekoak irudikatu dira (2011-2015 urteak).

### CO: Urteko zortzi orduko maximoa



**OZONOA (O<sub>3</sub>)**

Honakoak dira O<sub>3</sub>-arentzat airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako mugak:

Kutsatzailea	Batez bestekoa	Informazio Atalasea	Alerta Atalasea	Betetze data
O <sub>3</sub>	Ordukoa	180 µg/m <sup>3</sup>	240 µg/m <sup>3</sup> (3 ordu jarraian)	2004/01/01

Kutsatzailea	Batez bestekoa	Helburu-balioa	Epe luzerako helburua	Betetze data
O <sub>3</sub>	Zortzi orduko batez besteko mugikorren eguneko maximoa	120 µg/m <sup>3</sup> (urteko 25 gaintitze gehienez, 3 urteko epearen batez besteko bezala)	120 µg/m <sup>3</sup> <sup>3</sup>	2010/01/01 (2010-2012 epea)

Jarraian orduko batez besteko balio nahiz zortzi orduko batez bestekoekin egindako kalkuluak agertzen dira.

Kasuen prozesamenduaren laburpena (ordu balioak)				
2015	Zona	N	Portzentajea	Maximoa (µg/m <sup>3</sup> )
O <sub>3</sub> Agurain	7	8553	%97,6	156
O <sub>3</sub> Algorta	2	8235	%94,0	117
O <sub>3</sub> Alonsotegi	2	8355	%95,3	139
O <sub>3</sub> Arraiz	2	8237	%94,0	128
O <sub>3</sub> Avda. Tolosa	3	8372	%95,5	135
O <sub>3</sub> Azpeitia	6	7969	%90,7	168
O <sub>3</sub> Castrejana	2	8331	%95,1	134
O <sub>3</sub> Durango	5	8678	%99,0	144
O <sub>3</sub> Elciego	8	8376	%95,6	153
O <sub>3</sub> Fac. Farmacia	7	8339	%95,1	149
O <sub>3</sub> Jaizkibel	4	8387	%95,7	169
O <sub>3</sub> Larrabetzu	5	8356	%95,3	127
O <sub>3</sub> Llodio	1	8307	%94,8	113
O <sub>3</sub> M <sup>a</sup> Diaz	2	8585	%98,0	128
O <sub>3</sub> Mazarredo	2	8167	%93,2	135
O <sub>3</sub> Montorra	5	8352	%95,3	136
O <sub>3</sub> Mundaka	3	8533	%97,4	154
O <sub>3</sub> Muskiz	2	8327	%95,0	138
O <sub>3</sub> Pagoeta	3	8130	%92,8	162
O <sub>3</sub> Parque Europa	2	8329	%95,0	135
O <sub>3</sub> Puio	4	8384	%95,7	136
O <sub>3</sub> San Julian	2	8649	%98,7	147
O <sub>3</sub> Sangroniz	2	4521	%54,7	143
O <sub>3</sub> Serantes	2	8380	%95,6	136
O <sub>3</sub> Urkiola	5	3648	%44,1	146
O <sub>3</sub> Valderejo	8	8351	%95,3	167
O <sub>3</sub> Zalla	1	8339	%95,1	156
O <sub>3</sub> Zelaieta	5	8344	%95,2	134
O <sub>3</sub> Zierbena	2	8366	%95,5	131
O <sub>3</sub> Zumarraga	6	8233	%93,9	152

<sup>3</sup> Betetze data definitu gabe.

Eguneko zortzi orduko maximoen kasuan urteko balio maximoaz gain, 93,2 perntzentila (93,2P) ere kalkulatu da, hots, urteko 26. balio altuenaren baliokidea. Adierazle hori hautatu da  $120 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko balioa gaudituko balu urtean zehar balio hori 25 alditan baino gehiagotan gaudituko dela adieraziko lukeelako.

Kasuen prozesamenduaren laburpena (Eguneko zortzi orduko maximoak)						
2015	N	Portzentajea	Maximoa	93,2P ( $\mu\text{g}/\text{m}^3$ )	Gauditze kop.	Batez besteko gauditze kop. (2013-2015)
O <sub>3</sub> Agurain	365	%100,0	138	99,00	9	6
O <sub>3</sub> Algorta	365	%100,0	99	88,25	0	0
O <sub>3</sub> Alonsotegi	365	%100,0	118	87,25	0	0
O <sub>3</sub> Arraiz	363	%99,4	118	94,00	0	1
O <sub>3</sub> Avda. Tolosa	365	%100,0	111	88,00	0	0
O <sub>3</sub> Azpeitia	352	%96,4	123	88,13	1	1
O <sub>3</sub> Castrejana	365	%100,0	99	85,25	0	0
O <sub>3</sub> Durango	364	%99,7	117	87,00	0	0
O <sub>3</sub> Elciego	365	%100,0	144	115,24	17	21
O <sub>3</sub> Fac. Farmacia	364	%99,7	136	97,00	2	1
O <sub>3</sub> Jaizkibel	365	%100,0	147	114,00	7	14
O <sub>3</sub> Larrabetzu	365	%100,0	99	84,24	0	0
O <sub>3</sub> Llodio	365	%100,0	97	76,00	0	1
O <sub>3</sub> M <sup>a</sup> Diaz	365	%100,0	112	85,00	0	0
O <sub>3</sub> Mazarredo	360	%98,6	123	87,00	1	0
O <sub>3</sub> Montorra	365	%100,0	112	84,00	0	0
O <sub>3</sub> Mundaka	365	%100,0	127	96,24	2	4
O <sub>3</sub> Muskiz	365	%100,0	113	91,00	0	1
O <sub>3</sub> Pagoeta	360	%98,6	118	96,00	1	0
O <sub>3</sub> Parque Europa	365	%100,0	114	86,00	0	8
O <sub>3</sub> Puio	365	%100,0	99	84,00	0	0
O <sub>3</sub> San Julian	363	%99,4	121	98,00	1	2
O <sub>3</sub> Sangroniz	200	%54,7	118	92,46	0	0
O <sub>3</sub> Serantes	365	%100,0	116	92,24	0	15
O <sub>3</sub> Urkiola	161	%44,1	126	96,12	2	-
O <sub>3</sub> Valderejo	365	%100,0	148	125,00	35	32
O <sub>3</sub> Zalla	365	%100,0	125	89,00	3	3
O <sub>3</sub> Zelaieta	365	%100,0	116	86,00	0	1
O <sub>3</sub> Zierbena	365	%100,0	99	84,24	0	0
O <sub>3</sub> Zumarraga	363	%99,4	133	95,00	5	9

- 2015 urtean zehar ez da informazio atalasea gaudituko Sareko estazioetan
- Helburu-balioa Valderejon gaudituko da (25 gauditze gehienez)




Jarraian EAEko mapan irudikatzen dira modu espazialean estazio bakoitzeko zortziorduko balio maximoen 90,4P-ren urteko balioak (2015 urtea) kolore bati loturik dauden taldeetan antolatuta. Adierazle hori hautatu da  $120 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko balioa gaindituko balu urtean zehar balio hori 25 alditan baino gehiagotan gainditu dela adieraziko lukeelako. Honela, kutsatzaile honen helburu-balioa gaindituko litzatekeelako.

Urteko ebaluzioa O <sub>3</sub>	Zotzi orduko balio maximoen 93,2P
Oso ona	0-80
Ona	80-100
Hobetzeko modukoa	100-120
Txarra	120-140
Oso txarra	>=140

Hein eta balio horiek dira Europako Ingurumen Agentziak (AEMA) eguneko zortzi orduko maximoak hartuta O<sub>3</sub>-aren urteko ebaluzioa egiteko erabiltzen dituenak.


### O<sub>3</sub> 2015 URTEA: Urteko zortziorduko balio maximoen 93,2P ( $\mu\text{g}/\text{m}^3$ )



Zutabe grafikoan 93,2P-k azken bost urteetan (2011-2015) izan duen balioa agertzen da eta erreferentzia gisa helburu-balioa nabarmendu da.



### O<sub>3</sub>: Eguneko zortzi orduko maximoen urteko 93,2P



**BENTZENOA (C<sub>6</sub>H<sub>6</sub>)**

Honakoa da bentzenoarentzat airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako muga:


Kutsatzailea	Batez bestekoa	Muga-balioa	Betetze data
Benceno	Urtekoa	5 µg/m <sup>3</sup>	2010/01/01

Jarraian burututako kalkuluak agertzen dira.

Kasuen prozesamenduaren laburpena (ordu balioak)			
2015	N	Portzentajea	Batez bestekoa (µg/m <sup>3</sup> )
C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Abanto	7624	%87,0	0,53
C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Avda. Gasteiz	7613	%86,9	0,45
C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Easo	7912	%90,3	0,73
C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Beasain	8582	%97,9	0,71
C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Mazarredo	7636	%87,1	0,41
C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Munoa	7677	%87,6	0,33
C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> San Julián	8406	%95,9	0,89
C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Zelaieta	8123	%92,7	0,51

*2015ean Sareko estazio guztietan neurtutako C<sub>6</sub>H<sub>6</sub> balioak araudian ezarritako mugaren azpitik daude*

2015 urtean 8 estazioren datuak eduki arren, grafikoan Easo, Munoa, San Julian eta Zelaietari dagozkienak soilik agertzen dira, izan ere, horiek dira neurketa serie osoenak dituztenak. Azken bost urteetako kalkuluak agertzen dituen zutabe grafikoan ezarritako ebaluazio atalaseak gehitu dira (2011 urtean ez dago nahikoa daturik Zelaietan eta 2012an Munoon falta dira).



**METAL ASTUNAK (PB, AS, CD ETA NI)**

Lau estazioetan egindako metalen neurketen emaitzak aurkezten dira: M<sup>a</sup> Díaz de Haro (Bilbao), Erandio (Erandio), Avda. Tolosa (Donostia) eta Tres de Marzo (Gasteiz).

Neurketen emaitzek agerian uzten dute elementua detektatzeko erabilitako teknikaren Detekzio Muga Azpitik daudela balio asko. Hau da, balio gehienak oso baxuak dira.

Balio banaketan detekzio muga azpitik dagoen datu portzentajea oso handia denean ez da gomendagarria batez bestekoa erabiltzea emaitzak deskribatzeko, izan ere, batez bestekoa muturreko balioekiko sentikorra den estatistikoa baita. **Mediana** (50P) edo balio zentrala, aldiz, estatistiko sendoa da. Muturreko balioak aldatuta ere mediana ez da aldatuko. Beraz, **metal astunen ebaluazioa egiteko azken estatistiko hori erabiltzen da** eta horri balioen banaketa hobeto ezagutzeko beste pertzentil altuagoak (75P, 90P eta 95P) deta eguneko batez besteko balio maximoa ere gehitzen zaizkio.

**BERUNA (PB)**

Honakoa da **Berunarentzat** (Pb) airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako muga:

Kutsatzailea	Batez bestekoa	Muga-balioa	Betetze data
Beruna	Urtekoa	0,5 µg/m <sup>3</sup>	2005/01/01


Hurrengo taulan ikus daitekeenez, Erandioko estazioan salbu, datuen erdia baino gehiago detekzio muga azpitik daude. M<sup>a</sup> Díaz estazioan (Bilbo) 299 laginketatik 103tan detektatu da beruna, Donostiako Avda. Tolosa estazioan 340 laginketatik 8tan soilik detektatu da eta Tres de Marzo estazioan 363 laginketatik 47tan.

Kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak µg/m <sup>3</sup> -tan)								
2015	N	Portzentajea	%DMA <sup>4</sup>	50P (Balio zentrala)	75P	90P	95P	Maximoa
Pb M <sup>a</sup> Díaz	299	%81,9	%65,5	<DM	0,05	0,06	0,07	0,14
Pb Erandio	161	%44,1	%39,1	<b>0,04</b>	0,07	0,14	0,16	0,55
Pb Avda. Tolosa	340	%93,1	%97,6	<DM	<DM	<DM	<DM	0,03
Pb Tres de Marzo	363	%99,4	%87,0	<DM	<DM	0,06	0,07	0,12

*2015ean erreferentziako lau estazioetan neurtutako Pb balioak araudian ezarritako mugaren azpitik daude*

Jarraian dagoen kutxa diagraman kutxak (kuartil arteko barrutia) eta estazio bakoitzean 2015 urtean neurtutako gainerako balioak daude.

<sup>4</sup> Detekzio Muga Azpitik = 0,02 µg/m<sup>3</sup>



**ARTSENIKOA (AS)**

Honakoa da **Artsenikoarentzat** (As) airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako muga:

Kutsatzailea	Batez bestekoa	Helburu-balioa	Betetze data
As	Urtekoa	6 ng/m <sup>3</sup>	2013/01/01


Artsenikoaren kasuan ere altua da detekzio muga azpitik dagoen datuen portzentajea; batez ere, Avda. Tolosan, non, 340 laginketatik 39tan detektatu den As. Tres de Marzon estazioan, aldiz, 363 laginketatik 122tan detektatu da.

Kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak ng/m <sup>3</sup> -tan)								
2015	N	Portzentajea	%DMA <sup>5</sup>	50P (Balio zentrala)	75P	90P	95P	Maximoa
As Mª Díaz	299	%81,9	%40,1	<b>0,80</b>	1,17	1,86	2,32	4,34
As Erandio	161	%44,1	%37,2	<b>0,60</b>	0,91	1,33	1,59	3,99
As Avda. Tolosa	340	%93,1	%88,5	<DM	<DM	0,77	0,82	1,08
As Tres de Marzo	363	%99,4	%64,1	<DM	0,75	1,14	1,40	1,80

*2015ean erreferentziako lau estazioetan neurtutako As balioak araudian ezarritako mugaren azpitik daude*

Jarraian dagoen kutxa diagraman kutxak (kuartil arteko barrutia) eta estazio bakoitzean 2015 urtean neurtutako gainerako balioak daude.

<sup>5</sup> Detekzio Muga Azpitik = 0,4 ng/m<sup>3</sup>



### KADMIOA (Cd)

Honakoa da **Kadmioarentzat** (Cd) airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako muga:

Kutsatzailea	Batez bestekoa	Helburu-balioa	Betetze data
Cd	Urtekoa	5 ng/m <sup>3</sup>	2013/01/01


Beste behin ere aipatzekoa da Mª Díaz-en kadmioa 299 laginetatik 102tan aurkitu dela, Donostiako Avda. Tolosa estazioan 340 laginetatik soilik 12 egunetan detektatu dela, eta, Tres de Marzo estazioan 363 laginetatik 38 laginetan detektatu dela.

Kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak ng/m <sup>3</sup> -tan)								
2015	N	Portzentajea	%DMA <sup>6</sup>	50P (Balio zentrala)	75P	90P	95P	Maximoa
Cd Mª Díaz	299	%81,9	%65,8	<DM	0,77	1,07	1,27	10,13
Cd Erandio	161	%44,1	%23,6	<b>1,02</b>	1,67	3,11	5,95	31,28
Cd Avda. Tolosa	340	%93,1	%96,4	<DM	<DM	<DM	<DM	1,01
Cd Tres de Marzo	363	%99,4	%89,5	<DM	<DM	0,56	0,66	0,96

*2015ean erreferentziako lau estazioetan neurtutako Cd balioak araudian ezarritako mugaren azpitik daude*

Jarraian dagoen kutxa diagraman kutxak (kuartil arteko barrutia) eta estazio bakoitzean 2015 urtean neurtutako gainerako balioak daude.

<sup>6</sup> Detekzio Muga Azpitik = 0,4 ng/m<sup>3</sup>



### NIKELA (NI)

Honako da **Nikelarentzat** (Ni) airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako muga:

Kutsatzailea	Batez bestekoa	Helburu-balioa	Betetze data
Ni	Urtekoa	20 ng/m <sup>3</sup>	2013/01/01

Kasu honetan Mª Díaz-en 299 laginketatik 95etan detektatu da nikela, Erandion 161 laginketatik 77tan, Avda. Tolosan 340 laginketatik 8tan soilik eta Tres de Marzon 363 laginketatik 29 laginetan.


Kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak ng/m<sup>3</sup>-tan)

2015	N	Portzentajea	DMA% <sup>7</sup>	50P (Balio zentrala)	75P	90P	95P	Maximoa
Ni Mª Díaz	299	81,9	%67,5	<DM	9,79	14,39	21,70	30,01
Ni Erandio	161	44,1	%52,1	<DM	13,19	18,95	21,22	25,84
Ni Avda. Tolosa	340	93,1	%97,6	<DM	<DM	<DM	<DM	7,43
Ni Tres de Marzo	363	99,4	%91,7	<DM	<DM	<DM	7,85	9,50

*2015ean erreferentziako lau estazioetan neurtutako Ni balioak araudian ezarritako mugaren azpitik daude*

Jarraian dagoen kutxa diagraman kutxak (kuartil arteko barrutia) eta estazio bakoitzean 2015 urtean neurtutako gainerako balioak daude.

<sup>7</sup> Detekzio Muga Azpitik = 4 ng/m<sup>3</sup>



### BENTZO(A)PIRENOA (B(A)P)

Metalentzat bezala Sareko lau estazioetan egindako neurketak agertzen dira: A **Mª Díaz de Haro (Bilbao)**, **Erandio, Avda. Tolosa (Donostia) eta Tres de Marzo (Gasteiz)**.

Neurketen emaitzek agerian uzten dute konposatua detektatzeko erabilitako teknikaren Detekzio Muga Azpitik daudela balio asko. Hau da, balio gehienak oso baxuak dira.

Balio banaketan detekzio muga azpitik dagoen datu portzentajea oso handia denean ez da gomendagarria batez bestekoa erabiltzea emaitzak deskribatzeko, izan ere, batez bestekoa muturreko balioekiko sentikorra den estatistikoa baita. **Mediana** (50P) edo balio zentrala, aldiz, estatistiko sendoa da. Muturreko balioak aldatuta ere mediana ez da aldatuko. Beraz, **bentzo(a)pirenoaren ebaluazioa egiteko azken estatistiko hori erabiltzen da** eta horri balioen banaketa hobeto ezagutzeko beste pertzentil altuagoak (75P, 90P eta 95P) deta eguneko batez besteko balio maximoa ere gehitzen zaizkio.

Honakoa da konposatu honentzat airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako muga:

Kutsatzailea	Batez bestekoa	Helburu-balioa	Betetze data
<b>Bentzo(a)pirenoa</b>	Urtekoa	1 ng/m <sup>3</sup>	2013/01/01


Bentzo(a)pirenoaren kasuan ere agerikoa da detekzio muga azpitik dagoen datu kopurua altua dela. Honela, Mª Díaz-en hidrokarbuero hau guztizko 90 laginketatik 14tan detektatu da, Erandion 55 laginketatik 11tan detektatu da, Avda. Tolosan 89 laginketatik 16tan eta Tres de Marzon 93tik 16tan.

Kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak ng/m <sup>3</sup> -tan)								
2015	N	Portzentajea	%DMA <sup>8</sup>	50P (Balio zentrala)	75P	90P	95P	Maximoa
M <sup>a</sup> Díaz	90	%24,6	%84,4	<DM	<DM	0,55	0,60	0,62
Erandio	55	%15,0	%80,0	<DM	<DM	0,39	0,46	0,53
Avda. Tolosa	89	%24,3	%82,0	<DM	<DM	0,47	0,56	0,66
Tres de Marzo	93	%25,4	%82,8	<DM	<DM	0,88	1,07	1,41

*2015ean erreferentziako lau estazioetan neurtutako B(a)P balioak araudian ezarritako mugaren azpitik daude*

Jarraian dagoen kutxa diagraman kutxak (kuartil arteko barrutia) eta estazio bakoitzean 2014 urtean neurtutako gainerako balioak daude.

Marraztutako lerroa muga-balioari dagokiona da, baina, aintzat hartu behar da muga hori urteko batez bestekoarentzat ezarritakoa dela.



<sup>8</sup> Detekzio Muga Azpitik = 0,1 ng/m<sup>3</sup>



## EMAITZEN LABURPENA

SO<sub>2</sub> mailak araudiak ezarritako airearen kalitate mugetatik oso urrun daude nahiz eta Zierbenan mugara hurbiltzen den ordu balio bat neurtu. Beraz, 2015 urtean ez da orduko balioentzat ezarritako 350 µg/m<sup>3</sup>-ko muga gainditu.

NO<sub>2</sub>-aren kasuan ere ez dira mugak gainditu 2015 urtean. Erandio eta Tres de Marzo estazioetan bitan gainditu da orduko batez besteko 200 µg/m<sup>3</sup>-ko muga; behin estazio bakoitzean, indarrean dagoen araudiak baimendutako gainditze kopurua 18-koa izanik. Muturreko balio horiek oso noizbehinka eman dira eta, oro har, hiru hiriburuetakoko estazioekin (trafiko isurien eragina nabarmenagoa da bertan) batera Erandio, Hernani eta Tolosakoa dira maila altuenak dituztenak.

Partikula mailak, PM<sub>10</sub> nahiz PM<sub>2,5</sub>-en kasuan, airearen kalitate mugen azpitik daude. Iturri naturalei egotzi dakizkiekeen deskontuak eginda Zumarragako estazioan 12 aldiz gainditu da 50 µg/m<sup>3</sup>-ko muga eguneko batez bestekoetan, 10 aldiz Llodion eta Tres de Marzon. Gainerako estazioetan 10 gainditzetik behera zenbatu dira eta araudiak gainditze horiek gehienez 35 izango direla ezartzen du. Gainditze kopuruak aurreko urtekoekin alderatzen direnean, aldaketa nabarmena da estazio askotan. Batetik, jaitsi egin dira Zumarragan eta Zelaietan. Bestetik, igo egin dira Lezon, Tres de Marzon edo Llodion. Bestalde, 90,4P-aren urte batetik besterako aldaketak txikiak dira.

CO batez bestekoak oso baxuak dira estazio guztietan, Ebaluazio Behe-Atalasea baino dezente baxuagoak hain zuzen.

O<sub>3</sub>-ari dagokionez, ez da inon gainditu 180 µg/m<sup>3</sup>-ko balioa (populazioa informatzeko atalasea). Bestalde, Valderejon eguneko zortzi ordukoen batez besteko maximoa gainditu da (gehienez 25 aldiz gaindi daiteke 120 µg/m<sup>3</sup>-ko balioa 3 urteko batez besteko bezala). Elciegon esaterako, 21 gaindiketa kontatu dira eta Serantes eta jaizkibelen 15 eta 14 hurrenez hurren. Balio altuenak landa eremuan dauden estazioetan neurtu dira (Elciego eta Valderejo) eta baita leku altuetan daudenetan ere, Jaizkibel eta Serantesen adibidez (herriguneetatik urrun dauden eta lurralde arteko garraioa neurtzeko erabiltzen diren mendi gailurrak). Oro har, 93,2P adierazlea jaitsi egin da estazio horietan guztietan aurreko urtearekiko alderatuta baina Valderejon ez da ia aldatu.

Neurketak egin diren estazio guztietan bentzenoaren batez bestekoak baxuak dira eta bai mugatik bai ebaluazio-atalaseetatik urrun daude.

Neurtu diren lau estazioetan, M<sup>a</sup> Díaz de Haro (Bilbao), Erandio (Erandio), Avda. Tolosa (Donostia) eta Tres de Marzon (Gasteiz) metal eta bentzo(a)pireno mailak oso baxuak dira. Nabarmentzeko modukoa da detekzio muga azpitik dagoen datu portzentaje altua, batez ere, Avda. Tolosa eta Tres de Marzon. Maila horiek guztiak helburu-balioak baino askoz baxuagoak dira eta Erandion eta M<sup>a</sup> Díaz de Haron nikelaren neurketak dira azpimarratzeko modukoak ebaluazio behe-atalasetik gertu daudelako. Hala ere, azken horiek detekzio muga azpitik daude.